

PASARTE HAUTATUA

Anne Carson
Telebista
gizonak:
Ajmatova (Gidoi
baten trataera)

TELEFONO HIZKUNTZA (1925)

Badakizu buiraka inprentan gela dutela -k esan nahi zuen Gumiľov atxilo hartu zutela.

Cheka ko kuartel nagusitik Gorokhovajara eraman zuten (beste kartzelara) eta handik Iriniskaja kaleko zuhaiztura.

Pinutxo oker bat, eta sustraiak aterata zituen beste bat ondoan. Hau zen horma-k esan nahi zuen hirurogehi pertsona hil zituztela tiroz han. Bi zulo. Lurra hondoratu egin zen.

AJMATOVAREN AURKAKO
KANPAINA HASTEN DA (1922).

Farolez farol zebilen korrika, haizea joka zuela.

Trotskik bere lana aipatu zuen *Pravda*-n: «Batek penaz leitzen du...»

eta Alderdi Komunistaren erabaki ez-ofizial batek bere poesia debekatu zuen (1925).

Ez zuen jakin, artean ez zekien Alderdi Komunita zer zen ere.

Lainoak hiria itotzen zuen.

Errusiako poeta handi guztiak 35 urteren bueltan zebiltzan.

Zuhaitz nahasiak ezarian zihozaz kanal inguruan aurrera eguzki indargearen pean.

MANDELSTAM

Akhmatova *Macbeth* itzultzen zebilen 30 urteak bete berri («urte barazkijaleak» deitzen zituen, haien xarma bereiztearren etortzeko ziren «urte haragijaleak»).

Stalinen hatzak zizareekin parakatu zituen poema bategatik atxilotu zuten Osip Mandelstam 1934ko maiatzean. Poliziak gauda pasa zuen bere paperak miatzten eta lurrean hedatzen alboko apartamentutik heltzen zen ukelearen doinutara.

Akhmatovak sekula ez zuen *Macbeth* bukatu, baina maite zuen heroieren hitzen aipamena egin eta esatea bere sorterrian jendea sonbreiruetan eraman ohi zituzten loreak baino azkarrago hiltzen zela. [...]



Liburua. 'Men in the off hours'.

Subjektu zahar-berriaren aldarri

Iratí Majuelo

Erreferente da Mari Luz Esteban, bai antropologian, bai feminismoan, eta euskal letretan orohar. Bere lan-lerroak modu integratuean ulerturik, azken poesia liburu hau beste bidarri baten gisa ulertu beharra dago Estebanen bidean. Helburu zehatza dauka: andrezahararren subjektua mahai gainean jartzea, bere aldarri eta deserosotasun guztiak. Horretarako, egileak berezko dituen ahots desberdinak baliatzen ditu lanaren hiru ataletan zehar.

Lehen atalak *Galdere-ikurra* du izenburu. Izan ere, haurtzaroko begiradatik osatutako poemak dira, «zahartzea urrun eta arrotz/ nuen orain batean». Bere inguruko emakumeak aurkezten dizkigu ahots honek, inuzentziaz eta miresmenez, garaiko topiko-

tik urruntzen diren figurak eskainiz. Atalik intimo eta goxoena da, eredu-marko zurrunetik kanpoko eredueta zahartzaroko deskubritzen doana. Hirugarren pertsona nagusi duten poema deskriptiboak dira, hizkuntza arrunt eta egunerokoz edertuak, liburuak aurrera egin ahal teknifikatzen joanen den hizkera



'Andrezahararren manifestua'

Egilea: Mari Luz Esteban. Argitaletxea: Pamiela.

Gure baitako filologo txikia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Iruditegia hitzak esanahi bikoitza du. Orain «irudi bilduma», eta «irudimenak biltzen duena» esanahiekin erabiltzen badugu ere, duela hogeitertetik atzera *agertoki* hitzaren sinonimo hutsa zen -Larramendiren garaietatik-, eta ez besterik.

Liburu honi esanahi berriarekin jarriko zioten izenburua, baina adiera zaharra iradokitzaileago gertatzen zait.

Jorrazten duen gaiari dagokionez, euskal hitzen edertasuna gorainpatzeko usadioan dator obra hau -gurean beti boladan egongo dena-, batik bat euskarak bere hitzen barne konposaketa hain garden erakusten duelako; eta zer demontre, euskaldun guztiok gure baitan halako plazeretara

makurtzen gaituen filologo txiki bat dugulako.

Guztira 30 hitz aztertzen dira, hurrenkera alfabetikoan emanak. Hitz bakoitzaren gainean ilustrazio bat dator, hitzaren azpian dagoen azalpen testuarekin jolasean bezala.

Testuak hitzaren etimologiaren eta iradokizun poetikoen artean kokatzen dira, eta, prefosta, jolas literarioko pasarteak maiteago izan ditut, nire baitako filologo txikia kontra-irritzi sumindurarako beti prest dagoelako.



'Hitzen iruditegia'

Idazle eta ilustratzailea: Ane Arzelus. Argitaletxea: Denonartean.

baten lehen abiapuntua jartzen dutenak.

Gorputza dauka erdigunean *Gorputzaren iragaitzak*-ek. Atal honetan, zahartzaroko behatoki gisa proposatzen du jadanik heldu den emakume ahotsak. Gorputzaren aldaketek eta zahartzaroren aurkikuntzek ardatzen dituzten poemak, aro berri bat kontzienteki bizitzeak dakartzan onurez ari delarik. Sexualitatea, politika, adiskidetasuna, gudan zein horiengan nabari da denboraren arrastoa. Are, emakume heldu ezagunak hartzen ditu hizpide, eta hala emakume artista eta pentsalarien erreferentzia ugari egiten ditu Estebanek.

Azken atalean, *Andrezahararren manifestua*-k liburuaren xedea berresten du: «Manifestu bat da/ zure garaia eta zure gizartearen/ Arrazoiaren aurka idaztea/ leio bat zabaltzea etorkizunera». Aurreko bi atalen justifikaziotzat har daiteke prosa poetikoan idatzitako aldarri segida hau. Subjektu poetiko/politiko bat aurkezten du Estebanen hiru garren ahotsak. Esperientzia eta gogoeta ugariaren fusioa izanik, argi uzten du prototipoetarik

urruntzeko nahia, baina beldur naiz zenbaitetan subjektuak utopiarren edo dena barnebiltzearen arriskua hartzen ez ote duen:

«Aniztasun guztiak kabitzen dira nigan». Kontraesanen pilaketak aniztasun horren kontraesanak ahultzera egiten du aldizka.

Hizkuntzak nabarmen egiten du kontzeptu tekniko eta akademikoagoen aldera, eta zenbaitetan gaiari buruzko ohar-koaderno bat dirudi manifestuak. Intresgarria oso, zaplaztekoen gisako ideiak gailentzean, baina beste zenbaitetan garatzeke utzitako apunte soilen forma hartzen dute. Prosaren eta poesiaren hibrido etengabea izanik, eta Estebanek darabilen hizkera ikusirik, esango nuke saiakearen formatuak aukera gehiago emango lizkioke-ela testuari gaiak merezi duen pisa hartu eta distira egiteko.

Helburu politiko nabarmena duen poesia da, beraz, Estebanena. Baina ez nabarduririk gabea. Edergarririk gabe, arina bezain sakona izatea lortzen du tonu aldaketekin, nahiz eta *andrezahar* subjektuari buruz poesiaren mugetatik at irakurtzeko gogoz geratu.

Oilarrarekin kalejiran

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Puin hitza zehatza bezain orokorra da. Ipuinek berdintzen dituzten ezaugarriak bezainbeste dituzte desberdintzeko. Abiapuntu ona izaten da begiratzea testua nola dagoen eraikita, eskuartean zer dugun jakiteko, gainerako ezaugarriak erreskadan agertuko baitzaizkigu.


Kasurako, *Puka eta Mateoren oilarra* bidea eginez topatzen diren ezustekoekin osatzen den ipuina da.

Halakoetan hasierako unean pertsonaia nagusiak agertzen dira, geroko ekinzen gidaritzera eramango dutenak. Gure kasuan Puka zakurra eta Ronaldo oilarra. Jarraian mugimendua eragingo duen gertaera dator: Ronaldo oilarrak ihes egin du okindegitik,

okinaren desesperaziorako, lana-berri martxa gidatzen duen ezinbesteko metronomia baita. Puka gidari dela, haurrak eta okina atzetik abiatuko dira.

Ibilbideko geldialdi-gertakari lekuetan pertsonaia gaitzen joango dira, liburu honetan bertan *kalejira* deitzen den eran.

Halako ipuinetan umorea izaten da emozioen iturri, mugarriz mugarri zain dauden gertaera barre-eragileetan, eta ibilbidea goranzko tonu alaian egingo da, euforia helburu.



'Puka eta Mateoren oilarra'

Idazle eta ilustratzailea: Jokin Mitxelena. Argitaletxea: Elkar.